


HAURRAK

apaltasunez bizi, besteek bizitzeko
aukera apala izan dezaten



HAURRAK

ERAKUNDE-KANPAINA **2011-2012**

Aurkibidera

Hezitzailearentzako gida

HAURRENTZAKO

ikasmaterialen aurkezpena 3

Ipuina

Serafin txiki 6


Ipuina

Topami hodeia 13

Ipuina

Hazi txiki-txikia 27

Partekatzearen inguruko
otoitza 37



Hezitzailearentzako gida

HAURRENTZIAKO ikasmaterialen aurkezpena

Azken 3 urteetan, Cáritasen Kanpaina Instituzionalek herritarrei, eta kristau-elkarteari, etorkizuna duen gizarte bat errealitate bihurtzeko hainbat balore bizi eta praktikatzeko proposatu nahi izan diete.

Aurten, Cáritasen Kanpainak ziklo berri bati hasiera ematen dio. Orain, aurreko urteetan azaldutako balore ebanjelikoak oinarri hartuz, denon *artean elkartasuna, partaidetza, dibertsitatea, doakotasuna, senidetasuna eta konpromisoaren* baloreak irudikatzen dituen **gizarte eta ekonomia-eredu** berri bat errealitate bihurtzea proposatzen du; honen bitartez, gero eta behartsuago eta baztertuagoenen zeru iluna eta mehatxatzailea munduan gauden guztiontzat berriro argia eta urdina izatea lortzeko.

Cáritasek, Kristau-elkartearen izenean, aurtengo Kanpainarekin, gizakiaren ongizatean oinarritzen diren eta ingurumena errespetatzen duten, Garapen berri bati eta Ekonomia berri bati ekiteko premiazko beharra adierazi nahi dugu. Krisi ekonomikoak agerian jarri du mugarik gabeko Hazkundean oinarritutako eredu ekonomiko honek kaleitsu batera eraman gaituela.

Krisialdi honek nabarmen utzi du mundua bere aukera ekonomikoen gainetik bizi dela. Herrialde eta herritarrak ekoizten edo irabazten dugunaren gainetik zorpetuta gaude.

Krisialdiak agerian jarri du mundua bere aukera sozialen gainetik bizi dela: planetan dagoen aberastasunaren %90 munduko populazioaren %20aren eskuetan dago eta, aldi berean, 4.000 milioi pertsona pobrezia egoeran bizi dira. Hau da, Hazkundean oinarritutako eredu ekonomiko honek ez dio gizateria osoari, baizik eta bakar batzuei besterik ez, mesede egiten.

Eta, azkenik, krisialdi honek nabarmen utzi jarri du ere mundua bere aukera ekonomikoen gainetik bizi dela. Gure planeta aurrekaririk ez duen erritmo batean suntsitzen ari gara. Gure kontsumoak urtero lzadiak ekoizten dituen baliabideak %25ean gainditzen ditu.



apaltasunez bizi, besteek bizitzeko aukera apala izan dezaten

Kanpaina honek gutako bakoitzari proposatu nahi diona, Kanpainaren goiburua den esaldi bakun batekin laburbildu dezakegu: **“Apaltasunez bizi, besteek bizitzeko aukera apala izan dezaten.”** Ezin gara besoak uztarturik gelditu, ezin gara axolagabeak izan giza familiaren hiru laurdenak pobrezian nekez bizi diren bitartean (ikus Mt 25, 31-40).

Kanpaina honek igorri, piztu eta gogora ekarri nahi duenaren inguruan haurrak sentibilizatu eta hezteko, ikasmaterial hauek prestatu ditugu. Hemen proposatzen ditugun jarduera guztien atzean dagoen azken xedea, Kanpainaren mezu hau haurrari zuzen eta argi helaraztea da: *Gure bizitzeko, jokatzeke eta aritzeko moduarekin, guren ingurunean **onerako** eragin dezakegu. Uste ez badugu ere, gutako bakoitzak badu **munduaren zati bat** non zerbait egin dezakeen... eta asko dira horri etekina atera diezaioketenak... gu ia konturatu gabe.*

Jarraian aurkezten ditugu haurrekin Kanpaina honen mezua jorrazteko eskaintzen ditugun jarduerak:

Ipuina Serafin txiki

4 urtetik 7 urterako haurrekin jorrazteko
(Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloa).

Ipuin honen, eta honekin batera doazen jardueren, xedea haurrak dena beretzat nahi izatea eta berekoia izatea zein kaltegarri den ikustea, eta haurrari partekatzeko balorea poza ematen digun, eta aldi berean, besteek laguntzeko eta poza emateko balio duen gauza positibo bat bezala aurkeztea da.



Ipuina Topami hodeia

7 urtetik 11 urterako haurrekin jorrazteko
(Lehen Hezkuntza).

La finalidad de este cuento, y las actividades que se plantean a partir de él, es la de provocar la reflexión en niños y niñas sobre las consecuencias que tiene el que una persona viva y se comporte de forma egoísta. Tratamos de abrirle los ojos a la realidad injusta de este mundo para que tome conciencia de que nuestros actos y comportamientos, por pequeños e insignificantes que parezcan, tienen una repercusión para bien o para mal en la vida de otras personas. Si esto lo tiene claro, a partir de ahora puede tomar conscientemente la decisión de contribuir con su forma de vivir, con sus pequeñas acciones, a que este mundo vaya mejor.





Ipuina Hazi txiki-txikia

7 urtetik 11 urterako haurrekin jorrazteko (Lehen Hezkuntza).

Ipuin honen, eta hortik aurrera proposatzen diren jardueren, xedea haurrari gure gizarteak duen bizimoduak izadia suntsitzen duela, baita pobrezia sorrarazten duela ere, eta horren aurka lan egin behar dela ikustaraztea da. Haurra, Izadiarekiko duen erantzukizunaz ohartu dadila eta ekintza zehatzekin, hauek txikiak badira ere, ingurumena zaintzen laguntzeko beharra ikusi dezala nahi dugu.



Partekatzearen inguruko otoitza

Otoitz honekin otoitz egiteko eremu bat sortzeko aukera eskaintzen dugu, non haurrek euren burua Jesusen eskuetan jarri dezaketzen euren bizitzetan partekatzearen miraria errealitate bihurtzeko.



Ipuina

Serafin txiki

1. Ipuina prestatzeko jarduera

Ipuin hau hezitzaileak kontatu eta dinamizatu dezan sortu da, beraz, aurretiaz prestatu behar da. Hurrei, orri batean, eduki nahiko luketen edota euren gurasoei erosteko eskatu dieten gauza bat marraztea eta koloreztatzea eskatuko zaie. Gauza hori marrazten hasi baino lehen, hezitzaileak 9 haur aukeratuko ditu, hauek, marrazkia egiteaz gain, berak esango dien beste marrazki bat egin dezaten. Zehazki, marrazki hauek egingo dituzte: bizikleta bat, baloi bat, txokolatezko pastel bat, jaka bat, patin batzuk, arrainontzi bat, txakurtxo bat, suhiltzaile kamioi bat, eta gozoki edo litxarrerriak.

Marrazki guztiak bukatuta daudenean, hezitzailea haurren mahietara gerturatuko da eta zelo edo zinta itsaskor zati bat jarriko dio marrazki bakoitzari. Horrela, ipuinaren antzezpena egitean marrazkia itsasteko prest egongo da.

Hau eginda, hezitzaileak ausaz taldeko haur bat aukeratuko du protagonista izan dadin.

2. Ipuina kontatu eta dinamizatze modua

Hezitzaileak Serafinen papera egingo duen haurra bere alboan zutik jarriko du. Hezitzailea ipuina ipuin kontalari bat izango balitz bezala irakurtzen hasiko da, esaten duenari enfasi berezia jarri. Serafinen papera egiten duen haurrak Serafinek ipuinean zuzenean esaten dituen esaldi guztiak errepikatu beharko ditu. Hau da, lehenik hezitzaileak esango du esaldia ipuina irakurtzean, ondoren, gelditu egingo da, eta haurrari eskatuko dio esaldia Serafin izango balitz bezala errepikatzea.

Serafinek desiratzen zituen objektuak hegan etortzen hasten diren unean, hezitzaileak hauen izenak esaten dituenean, objektu hori marraztu duen haurra bere lekutik altxatuko da eta marrazkia hegan eramango du ipuinean esaten den Serafinen gorputz atalean itsatsi arte. Gauza bera egingo da hezitzaileak eskatutako bederlatzi marrazkiekin.

Jarraian, ipuinak zera esaten du: *“alde guztietatik gauza pila hegan etortzen ziren etengabe eta Serafinen gorputzean itsatsita gelditzen ziren”*. Une horretan, hezitzaileak haur bakoitzaren izena esango du, haurra bere tokitik altxatuko da, bere orrian marraztu duena ozen esango du eta, ondoren, bere marrazkia Serafinen papera egiten duen haurraren gorputzean libre dagoen edozein

atalean itsatsi arte hegan eramango du.

Haur guztiek euren marrazkia Serafinen gainean itsasten dutenean, Serafin ia guztiz estalita egongo da, marrazki pila baten azpian ezkutaturik. Orduan, hezitzaileak ipuina kontatzen jarraituko du amaiera arte.

Istorioaren amaierara iristean, bukaera honetan gertatzen dena hurrekin antzezteko, haurrak, ordena jarraituz eta banaka, altxatuko dira, Serafinen gorputzaren gainean itsatsita dagoen marrazki bat askatuko dute, eta azkar eserita dagoen eta bere mahaian marrazkirik ez duen beste haur bati eramango dio marrazkia, orain azkenik, Serafinek duen guztia gutxi edo ia ezer ez dutenekin partekatzea erabaki baitu.



3. Zer egin ipuina kontatu ondoren

a) Elkarrizketarako galderak

Haurrei galdera hauek botatzen dizkiegu libreki eta ozen erantzun dezaten:

- Zergatik nahi zuen Serafinek dena berarentzat?
- Dena beretzat nahi duen norbaitekin zaudetenean ondo pasatzen al duzue? Zergatik?
- Serafinek, desiratu zituen gauza guztien artean harrapatuta zegoenean, bere amaren esaldi bat gogoratu zuen, zein?
- Zer esan nahi du "partekatu" hitzak? Adibide bat jarri
- Zuetako nork du gogoko partekatzea? Zergatik?
- Serafin konturatu zen zorionsuagoa zela gauzak partekatzen zituenean dena beretzat zuenean baino. Zure ustez, zergatik konturatu zen horretaz?
- Azkenean, norekin partekatu zituen Serafinek desiratutako gauza guztiak?
- Nortzuk dira behartsuak gaur egun?
- Zu behartsua izango bazina edo laguntza beharko bazenu, besteek zurekin partekatzea gustatuko litzaizuke?



b) Cáritas zer den modu errazean azaldu


Hezitzaileak Cáritas zer den azaltzeko zera esango du: Cáritas pertsona kristauetz osaturiko talde bat da zeina, Elizaren izenean, pertsona behartsu eta pobreei laguntzeaz arduratzen den, eurek dutena eta kristau guztiek ematen dietena partekatuz, pertsona behartsu gehiago existitu ez daitezen. Beraiek badakite Serafin txikik ipuinaren amaieran esan zituen hitz magikoak esaten: **Partekatu nahi dut**. Ba al dakizu zuk hitz horiek esaten?

Eta, hitz magiko horiek gogoratu ditzaten, jarraian datorren marrazkia entregatuko zaie, txartel edo kromo gisa, koloreztatu dezaten eta euren logelan beti begien bistan eduki dezaten.

c) Jarduera

Paper zati jarraitu handi baten gainean hurrek egin dituzten marrazkietako batzuk itsatsiko dira, papera marrazkiz betetzen den arte. Horien gainean, Jesusen esaldi hau osatzen duten hitzak itsatsiko dira: "Ematen duenaren, eta partekatzen duenaren, poza hartzen duenarena baino handiagoa da."

Hezitzaileak esaldi hau osatzen duten letra edo hitzak hauren artean banatuko ditu, haiek gorritz koloreztatu eta ebaki ditzaten, ondoren, ikasgelako paretan esekiko den kartelean itsasteko.



PARTEKATU
NAHI DUGU!


Horrela beti pozik egongo
gara besteei laguntzen



*Hauek dira Cáritas-en
hitz magikoak*

PARTEKATU
NAHI DUGU!


Horrela beti pozik egongo
gara besteei laguntzen



*Hauek dira Cáritas-en
hitz magikoak*

PARTEKATU
NAHI DUGU!


Horrela beti pozik egongo
gara besteei laguntzen



*Hauek dira Cáritas-en
hitz magikoak*

PARTEKATU
NAHI DUGU!

Horrela beti pozik egongo
gara besteei laguntzen



*Hauek dira Cáritas-en
hitz magikoak*



Serafin txikia

Bazen behin gauza guztiak beretzat nahi zituen haur bat.

Zituen gauza guztietatik ez zuen ezer besteekin partekatu nahi.

Bere izena Serafin zen eta beti gauza bera esaten zuen: **“niretzat nahi dut.”**

Bere gurasoekin paseatzera joaten zenean, beti eskatzen zizkien erakusleihoetan edo kalean ikusten zituen gauza guztiak:

- Ama, ama, erakusleihoan dagoen bizikleta hori nahi dut; **niretzat nahi dut.**
- Aita, aita, erosi dendako pilota hori; **niretzat nahi dut.**
- Ama, ama, horko haur horrek daraman jaka nahi dut; **niretzat nahi dut.**
- Aita, aita, erosi txokolatzeko pastel hori hemen jateko; **niretzat nahi dut.**
- Ama, ama, hango mutilak daramatzan patinak nahi ditut; **niretzat nahi ditut.**

Baina bere gurasoen erantzuna beti berdina zen:

- Ez, Serafin, gauza aski dituzu jada; beste horiek ez dira zuretzat izango.

Serafinek erantzun hori ez zuen batere gogoko. Horregatik, ikusten zuen guztiarekin behin eta berriro, gauza bera esaten zuen:

- **“niretzat nahi dut!”**

Gau batean, Serafin, eskatutako guztia ukatu ziotenez, lo egitera haserre joan zen. Hain amorratuta zegoen, non begiak gogor itxi eta zorionsua izateko desio bat eskatu baitzuen.

Imajinatzen duzue zein den desio hori, ezta? Serafinen desioa hauxe izan zen:


- **“Dena niretzat nahi dut!”**

Magia balitz bezala, une hartan, bere desioa bete zen. Baina, Serafin ez zen konturatu eskatzeaz hain nekatuta zegoenez... lo hartu baitzuen.

Goiza iristean, Serafin esnatu zenean, dena aldatu zen. Eskolara joateko bere amarekin kalera irten zenean, magia balitz bezala, Serafinek aurreko hilean eskatu zituen gauza guztiak hegan etortzen hasi ziren eta bere gorputzean zehar itsatsita gelditu ziren, Serafin dena erakartzen zuen iman handia izango balitz bezala.

- Ezkerreko eskuan bizikleta bat itsatsita gelditu zitzaion.
- Eskuineko oinean baloi bat itsatsita gelditu zitzaion.
- Buruaren atzealdean txokolatzeko pastel bat itsatsita gelditu zitzaion.
- Ezkerreko oinean patin batzuk itsatsita gelditu zitzaizkion.

- Bizkarrean jaka bat itsatsita gelditu zitzaion.
- Buruan arrainontzi bat itsatsita gelditu zitzaion.
- Eskuineko eskuan etengabe zaunka egiten zuen txakur bat itsatsita gelditu zitzaion.
- Sudurrean suhiltzaile kamioi bat itsatsita gelditu zitzaion.
- Sabelean gozoki denda bateko litxarrerria guztiak itsatsita gelditu zitzaizkion.



Eta honela, alde guztietatik askoz gauza gehiago hegan etortzen ziren etengabe eta Serafinen gorputzean itsatsita gelditzen ziren.

Hainbeste gauza ziren... non Serafin objektu mordo handi bat bihurtu baitzen.

Ezin zen mugitu, ezin zuen ezta sudurrean hatz egin ere. Baina oso zoriontsu sentitzen zen, azkenik nahi zuen guztia zuelako.


Bere amak nahigabe handiz negar egiten zuen Serafin gauza mordo horien azpian galdu zuela uste baitzuen.

Etengabe esaten zion:

— Serafin, irten hortik! Serafin, irten hortik!

Baina Serafin oso pozik zegoen han, eta ez zuen irten nahi.

Bere ama, kaleko jendearen, suhiltzaileen eta poliziaren laguntzarekin, bere Serafin txikia estaltzen zuten gauza guztiak kentzen saiatu zen, baina gauzak elkarren artean hain sendo itsatsita zeuden, non ezinezkoa baitzen mordo hartatik ateratzea.





apaltasunez bizi, besteek bizitzeko aukera apala izan dezaten

Eta, bitartean, Serafinek pozik jarraitzen zuen han.

Jateko ordua iritsi zen arte, orduan Serafinek gosea sentitu zuen eta.

Eskuetan hainbeste gauza zituen, Non ezin baitzuen bere atzean itsatsita zegoen txokolatezko pastela hartu.

Ahalegin handiak egiten zituen arren, ezin zituen nonahi sakabanatuta zeuden gauza guztiak askatu.

Gosea izan eta ezin jan, egarria izan eta ezin edan, hotza izan eta ezin arropa jantzi, sudurrean azkura izan eta ezin hatz egin.

Bere amaren eskua hartzen saiatu zen... baina ezin izan zen mugitu.

Bere gauza mordotik atera nahi zuen, baina desiratu zuen guztiaren artean harrapatuta zegoen.

Behin eta berriro negar egin zuen nahigabe handiz, baina bere ama ezin izan zen gerturatu alaitzeko.

Orduan, etsita negar egiten jarraitu zuen, ez zekielako nola bistatik kendu harrapatuta zuen gauza mordo hura.

Eta, bere bizitzan lehenengo aldiz, Serafin beretzat hainbeste gauza desiratu izanaz damutu zen.

Malkoz beteta zituen begiak itxi eta bere amak beti esaten ziona gogoratu zuen:

— Serafin, ez ezazu dena zuretzat eskatu, partekatzen ikasi.

Orduan Serafinek gauza mordoan azpitik garrasi egin zuen:

— **Ama, partekatu nahi dut!**

Bat-batean, hitz magikoak esan balitu bezala, mendi bat osatuz bere gorputza estaltzen zuten gauza guztiak hegan atera ziren.

Eta gauza bakoitza, haur behartsu edo pobreago bat zegoen munduko bazter ezberdin batera joan zen.


Eta, azkenean, Serafinek benetan zoriontsua izateko modua ezagutu zuen.

Bere ama besarkatu eta elkarrekin alde egin zuten hauxe abesten:

— **Eta miruri mirura, dena partekatuz, ipuintxo hau bukatu da.**


José Real Navarro

Topami hodeia



Kondaira batek dioenez, orain dela urte asko, Topami izeneko hodei bat zegoen. Honek, beste hodeiek ez bezala, ez zioen bere ura inori eman nahi. Mundu osotik bidaiatzen zuen etengabe tantak jasoz, baina ez zuen inoiz bat ere lurrera erortzen uzten. Tanta guztiak beretzat nahi zituen.

Ikatza bezain beltza jarri zen txoriak bere barruan hegan egitea eta bere tantetako batzuk edatea saihesteko.




Hainbeste ur tanta eduki nahi zituen, non beste hodeiei barruan zituzten tantak kentzeari ekin baitzion. Ondorioz, hodei asko desagertu egin ziren berak xurgatu zituelako. Denbora igaro ahala, Topami gero eta erraldoiagoa zen, eta zeruko beste hodeiak berriz gero eta txikiagoak eta kaskarragoak bihurtzen ziren.



apaltasunez bizi, besteek bizitzeko aukera apala izan dezaten

Hemen eta han, denek erregutzen eta eskatzen zioten Topamiri bere ura oparitzea. Basoko zuhaitzek bizi ahal izateko bere ura eskatzen zioten. Animaliek eta landareek egarriz ez hiltzeko ura eskatzen zioten. Nekazariak larritasunez so egiten zioten euren soroak ureztatu zitzaizkien eta euren uztak salbatu zitzaizkien. Baina Topamik aurrera jarraitzen zuen beti inori ezer eman gabe.

Horregatik, laster lehorre handi bat mundu osoaz jabetu zen. Topamik xurgatu ezin izan zituen hodei txikiak euren ur eskasa ematen hasi ziren. Oso ur gutxi zen, baina behintzat Lurrean zegoen egarri ikaragarria apur bat arintzeko balio zuen.




Egia esan, azkenean Topamik bere zeruko boteretsuena zela sinetsi zuen. Ez zegoen bere bezain handirik, eta bere itzalak planeta erdia estaltzen zuen. Baina, Lurrean egarria zutenen garrasiak hain ozenak izan ziren, non azkenean haitzulo sakonenean bizi zen haizea esnatu baitzuten.

Haizea haserre bizian atera zen garrasi horien zergatia jakitean. Eta bere aurrean Topami ikustean, ordura arte Lurrean ikusi ez zen bezala putz egiten hasi zen.

Hainbeste indarrez putz egiten zuen, non hodei erraldoia milaka zati txiki- txikietan desegiten hasi baitzen.







Topami, haserre baino haserreago, haizeak bere ur tanta irrikatuak kentzen zizkiola ikustean, haizearen aurka milaka tximista, trumoi eta oinaztu bidali zituen. Baina, haizeak indar gehiagoz putz egiten jarraitzen zuela ikustean, milaka eta milaka izotz-harri bota zizkion. Hala ere, ahalegina egin bazuen ere, Topamik ezin izan zuen ezer egin haizearen indarraren aurka.

Azkenean, desegin egin zen eta ur lurrunduko milaka tanta libre utzi zituen, zeruan flotatzen, bera baino eskuzabalagoak ziren beste hodei batzuek jaso zain. *(Noizbait tximistak eta trumoiak entzuten badituzu eta kazkabarra gogor ari duela ikusten baduzu, horrek esan nahi du Topami hodeia haizearekin borrokan dabilela berea dena inori ez emateko.)*

Azkenean, Topami hodei txiki eta kaskar bat bihurtu zen eta baztertuta gelditu zen hodeien hilerrian, zeruertzetik harantz, euren ur tanta guztiak galdu dituzten hodeiak joaten diren tokian. Han, saminki negar egin zuen haizeak kendu zion guztiagatik.





Baina, negar egiten zuen bitartean, bera bezain txikia eta kaskarra zen beste hodei bat ikusi zuen, poz-pozik abesten zegoena. Orduan, oso atsekabetuta galdetu zion:

— Nola egon zaitezke hain pozik zure ur tanta guztiak galdu badituzu eta hain txikia eta kaskarra bazara? Ez al zara konturatzen ez duzula ezer?

Baina, hodeiak harrিতuta erantzun zion:


— Ez dudala ezer? Hodei batek desiratu dezakeen guztia dut. Pozik nago, nire urari esker milaka zuhaitz eta landare basati hazi direlako, milaka animala egartsu hiltzetik salbatu ditudalako, eta ehunka nekazarien soroak, euren seme-alabak gosez hil ez daitezen, irrigatu ditudalako. Denek arratsaldero, eguzkia sartzen denean, eskerrak ematen dizkidate han zeruertzean ikusten nautenean eta urrenetik esaten didate: Mila esker hain handia izateagatik.

José Real Navarro

Jarduerak

Elkarrizketarako galderak

1. Zergatik zen Topami ikatza bezain beltza?
2. Zergatik zen Topami hain erraldoia?
3. Zer egiten zuten hodei txikiak?
4. Zerk esnarazi eta bere haitzulotik irtenarazi zuen haizea?
5. Zergatik atera ziren tximista eta oinaztuak Topamiren barrutik?
6. Zergatik abesten zuen poz-pezik Topamirekin hodeien hilerrian zegoen beste hodeiak?
7. Azaldu zer esan nahi duen ipuinaren azken esaldiak.
8. Zer sintomek, zer portaerek, zer izaerek salatzen dute zure adineko pertsona bat "Topami" bat dela?
9. Zuretzat erraza edo zaila al da besteekin gauzak partekatzea? Zer da norbaitekin partekatu duzun azken gauza?
10. Gaurko munduan, pobrezia eta gabezia asko dago partekatzen ez dakiten eta eurentzat dena nahi duten pertsonak daudelako. Zein pobrezia egoera ezagutzen dituzu?
11. Jesusek esan zuen "ematen duenaren poza hartzen duenarena baino handiagoa dela". Noizbait gertatu al zaizu horrelakorik? Zer iruditzen zaizu esaldi hau? Zer ikusirik al du esaldi honek ipuinarekin?
12. Munduko zer arazko konponduko lirateke denok esaldi honek dioena beteko bagenu?





Jokoa: Domino efektua

Motibazioa:

Bizi garen munduan eta gizartean nagusitu den bizimodua 7 hitzekin definitu daiteke: norberekoieria, kontsumismoa, gutizia, zarrastelkeria, lehiakortasuna, aberastea eta axolagabekeria.

Gaur egun, pertsona asko hitz hauek gauzatuz bizi dira. Pertsona hauek Topami hodeia bezalakoak dira. Eta, Topamiri ipuinean gertatzen zitzaion bezala, hitz hauek gauzatzeak ondorioak ekartzen ditu.

Munduan pobrezia, gosea, miseria, bidegabekeria eta desberdintasunak badaude, 7 hitz horiek gauzatzen dituzten pertsona asko daudelako da. Euren bizimodua kontsumista da; norberekeria, zarrastelkeria, lehiakortasuna eta besteari gertatzen zaiorenakiko axolagabekeria dira nagusi, pertsona horiek nola edo hala eta bidean norbait uzteko beldurrik gabe aberastea bilatzen dute.

Pertsona horiek bezalakoa izan ez zaitez, "Domino efektua" jokoan arituko zara. Joko honekin aritzen zaren bitartean, jokaldi bakoitzean, 7 hitz hauetako bakoitzak munduan eragiten dituen ondorioez konturatuko zara.

Jokatze modua:

4 pertsonen osatutako taldeak egin. Hezitzaileak 7 hitzak dituzten domino fitxen fotokopiak emango dizkizue, fitxak ebaki ditzazuen.

Gero, fitxa bakoitzaren atzealdean, hezitzaileak emango dizuen orrian, "Egungo **gizartearen bizimoduaren ondorio kaltegarriak**" izenburua duena, agertzen diren datuak idatziko dituzue. 28 datu izango dira 28 fitxa betetzeko. Hau eginda, domino jokoa arau berdina jarraituz partida bat jokatuko duzue, baina berezitasun batekin: zenbakiekin batera, fitxek hitzak dituzte ere.

Domino partida bukatzen duzuenean, hezitzaileak galdera hauek egingo dizkizue, denon artean, iritzia emateko eta erantzuteko:

- Zer iruditzen zaizkizue "Egungo gizartearen bizimoduaren ondorio kaltegarriak" orriko datuak? Zer datu iruditzen zaizkizue deigarrienak? Zeintzuk izan dira gehien haserretu edo atsekabetu zaituztetenak?
- Zer aldatu beharko litzateke hau ez gertatzeko?
- Zer esango zeniekete pobrezia erazteko aukera euren esku duten baina pobrezia saihesteko ia ezer egiten ez duten gobernatzaile eta boteretsuei?
- Imaginatu zuek, eta zuen familiak, pobrezian bizi diren, gosea duten, edo edateko urik gabe bizi diren pertsona horietako bat zaretela. Zer esango zeniekete gaur egun 7 hitz hauetakoren bat gauzatzen duten pertsonari?

Orain, konpromisoa hartu dezagun aurkako “Domino efektua” ahalbidetzeko, beste mundu bat posible egin nahi dugulako, non ez diren existitzen gabeziak dituzten eta pobrezia sufritzen duten pertsonak.

- Zer 7 hitz gauzatu beharko genituzke gehiago egunero, mundu honetan domino partida jokatzearan irakurri ditugun datuak eta zifrak geroz eta gehiago murriztu edo desagertu daitezten?

Denon artean ados jarri behar zarete 7 hitz horiek aukeratzeko. Behin aukeratuta, talde bakoitzak domino joko berri bat egin beharko du eta, oraingo honetan, fitxetan hitz berriak jarri. Horretarako, hezitzaileak talde bakoitzari **“Egungo gizartearen bizimoduaren ondorio kaltegarriak”** fitxak dituzten orrien fotokopiak emango dizkio.

Fitxak prest daudenean, beste partida bat jokatu baino lehen, talde bakoitzak Ebanjelioaren liburu bat hartuko du, Nazareteko Jesusek aukeratu dituzten 7 hitz horiek nola gauzatu zituen erakusten duten aipuak bilatzeko. Berak, mundu hobe bat posible egiteko, bere jarraitzaileek ere hitz horiek gauzatu zitzaten nahi izan zuen. Honela, besteek kristau, Jesusen lagun, gisa antzemango lituzkete, horrela bizitzeagatik.




Jarraian, talde bakoitzak aurkitu dituen Ebanjelioko aipuak denon eskura jarriko ditu. Talde guztien artean, 7 hitzen inguruko aipuak aurkitu behar dituzte.



Posible den mundu hobe bateranzko bidea seinalatzen duten fitxa hauekin partida bat jokatu duzue: baina jokatu ahal izateko, jokalariek, gutxienez hilabete batez, edonon eta edonorekin 7 hitz hauek gauzatzeko konpromisoa hartu beharko dute. Partida bukatzean, mahai gainean gelditu diren fitxak begiratu. Begiratzen dituzuen bitartean, imajinatu, bat batean, fitxa bakoitza, magia balitz bezala, eltxo bat bihurtzen dela, ziztatzen duen bakoitza bere fitxako hitzekin kutsatuko duen eltxo bat.

Talde bakoitzak ipuin bat idatzi beharko du, non eltxo horiek protagonistak izango diren. Ipuinaren izenburua hauexek izango da: **“Eltxo zuri eta beltzak”**, (domino fitxak bezala). Zer istorio eta gertakari eragingo dituzte eltxo hauek gizakien munduan? Zuen irudimena askatu eta zuen istorioarekin sortzaileak izan. Jarraian, talde bakoitzak ipuina bere ikaskideei kontatuko die.



<p>6 Aberastea</p> <p>Dirua nola edo hala irabaztea</p>	<p>6 Aberastea</p> <p>Dirua nola edo hala irabaztea</p>	<p>6 Aberastea</p> <p>Dirua nola edo hala irabaztea</p>	<p>6 Aberastea</p> <p>Dirua nola edo hala irabaztea</p>
<p>6 Aberastea</p> <p>Dirua nola edo hala irabaztea</p>	<p>5 Lehiakortasuna</p> <p>Bestearen gainetik egoteko borrokatzea</p>	<p>4 Zarrastelkeria</p> <p>Alferrik gastatzea, eralgitzea</p>	<p>3 Gutizia</p> <p>Gauza gehiago, diru gehiago nahi izatea</p>
<p>6 Aberastea</p> <p>Dirua nola edo hala irabaztea</p>	<p>6 Aberastea</p> <p>Dirua nola edo hala irabaztea</p>	<p>6 Aberastea</p> <p>Dirua nola edo hala irabaztea</p>	<p>5 Lehiakortasuna</p> <p>Bestearen gainetik egoteko borrokatzea</p>
<p>2 Kontsumismoa</p> <p>Behar baino gehiago erostea</p>	<p>1 Norberekeria</p> <p>Norberaren interesez bakarrik kezkatzea</p>	<p>0 Axolagabekeria</p> <p>Behartsuez ez arduratzea</p>	<p>5 Lehiakortasuna</p> <p>Bestearen gainetik egoteko borrokatzea</p>
<p>5 Lehiakortasuna</p> <p>Bestearen gainetik egoteko borrokatzea</p>	<p>5 Lehiakortasuna</p> <p>Bestearen gainetik egoteko borrokatzea</p>	<p>5 Lehiakortasuna</p> <p>Bestearen gainetik egoteko borrokatzea</p>	<p>5 Lehiakortasuna</p> <p>Bestearen gainetik egoteko borrokatzea</p>
<p>4 Zarrastelkeria</p> <p>Alferrik gastatzea, eralgitzea</p>	<p>3 Gutizia</p> <p>Gauza gehiago, diru gehiago nahi izatea</p>	<p>2 Kontsumismoa</p> <p>Behar baino gehiago erostea</p>	<p>1 Norberekeria</p> <p>Norberaren interesez bakarrik kezkatzea</p>
<p>5 Lehiakortasuna</p> <p>Bestearen gainetik egoteko borrokatzea</p>	<p>4 Zarrastelkeria</p> <p>Alferrik gastatzea, eralgitzea</p>	<p>4 Zarrastelkeria</p> <p>Alferrik gastatzea, eralgitzea</p>	<p>4 Zarrastelkeria</p> <p>Alferrik gastatzea, eralgitzea</p>
<p>0 Axolagabekeria</p> <p>Behartsuez ez arduratzea</p>	<p>4 Zarrastelkeria</p> <p>Alferrik gastatzea, eralgitzea</p>	<p>3 Gutizia</p> <p>Gauza gehiago, diru gehiago nahi izatea</p>	<p>2 Kontsumismoa</p> <p>Behar baino gehiago erostea</p>



Mundu hobe bat posible egiteko domino efektua

6	6	6	6
6	5	4	3
6	6	6	5
2	1	0	5
5	5	5	5
4	3	2	1
5	4	4	4
0	4	3	2

<p>4 Zarrastelkeria Alferrik gastatzea, eralgitzea</p>	<p>4 Zarrastelkeria Alferrik gastatzea, eralgitzea</p>	<p>3 Gutizia Gauza gehiago, diru gehiago nahi izatea</p>	<p>3 Gutizia Gauza gehiago, diru gehiago nahi izatea</p>
<p>1 Norberekeria Norberaren interesez bakarrik kezkatea</p>	<p>0 Axolagabekeria Behartsuez ez arduratzea</p>	<p>3 Gutizia Gauza gehiago, diru gehiago nahi izatea</p>	<p>2 Kontsumismoa Behar baino gehiago erostea</p>
<p>3 Gutizia Gauza gehiago, diru gehiago nahi izatea</p>	<p>3 Gutizia Gauza gehiago, diru gehiago nahi izatea</p>	<p>2 Kontsumismoa Behar baino gehiago erostea</p>	<p>2 Kontsumismoa Behar baino gehiago erostea</p>
<p>1 Norberekeria Norberaren interesez bakarrik kezkatea</p>	<p>0 Axolagabekeria Behartsuez ez arduratzea</p>	<p>2 Kontsumismoa Behar baino gehiago erostea</p>	<p>1 Norberekeria Norberaren interesez bakarrik kezkatea</p>
<p>2 Kontsumismoa Behar baino gehiago erostea</p>	<p>1 Norberekeria Norberaren interesez bakarrik kezkatea</p>	<p>1 Norberekeria Norberaren interesez bakarrik kezkatea</p>	<p>0 Axolagabekeria Behartsuez ez arduratzea</p>
<p>0 Axolagabekeria Behartsuez ez arduratzea</p>	<p>1 Norberekeria Norberaren interesez bakarrik kezkatea</p>	<p>0 Axolagabekeria Behartsuez ez arduratzea</p>	<p>0 Axolagabekeria Behartsuez ez arduratzea</p>



apaltasunez bizi, besteek bizitzeko aukera apala izan dezaten

4 1	4 0	3 3	3 2
3 1	3 0	2 2	2 1
2 0	1 1	1 0	0 0

Egungo gizartearen bizimoduak eragiten dituen ondorio kaltegarriak

1. Eguneko euro batekin bizi diren 1.300 milioi pertsona daude.
2. Munduko aberastasunaren %90 populazioaren %20aren eskuetan dago.
3. Eguneko bi euro baino gutxiagorekin bizi diren 2.600 milioi pertsona daude.
4. Urtero 2,2 milioi haur baino gehiago hiltzen diren desnutrizioaren erruz.
5. Egunero 70.000 pertsona hiltzen dira gosearen eta pobrezia-ondorioz.
6. Edateko ura eskuragarri ez duten 1.600 milioi pertsona daude.
7. Gose larria sufritzen duten 963 milioi pertsona daude.
8. Espainian 9 milioi behartu daude, populazioaren %19,6.
9. Europan 81 milioi behartu daude, populazioaren %16,5.
10. Etxebizitza duinik ez duten 1.000 milioi pertsona daude.
11. Gure kontsumoak urtero izadiak ekoizten dituen baliabideak %25ean gaintitzen ditu.
12. Gosea erazteko, nahikoa izango litzateke krisialdi honetan bankuak salbatzeko gastatu denaren %1.
13. Erritmo hau mantentzen badugu, 2050ean urtero 2 planetek ekoizten dituzten baliabideak kontsumituko ditugu.
14. Desnutrizioa sufritzen duten 448 milioi haur daude.
15. 2015an munduan gosea erazteko helburutik urrun daude gobernariak.
16. Oinarrizko osasun zerbitzuak eskuragarri ez dituzten 880 milioi pertsona daude.
17. Funtsezko sendagaiak erosi ezin dituzten 2.000 milioi pertsona daude.
18. 5 urte baino gutxiagoko 30.000 milioi haur hiltzen dira egunero sendatu daitezkeen gaixotasunen erruz.
19. Osasun-instalazio egokirik ez duten 2.400 milioi pertsona daude.
20. Ekosistema naturalak aurrekaririk ez duen erritmo batean narriatzen ditugu.
21. Urtero 500.000 emakume baino gehiago hiltzen dira umea izatean medikurik ez dagoelako.



apaltasunez bizi, besteek bizitzeko aukera apala izan dezaten

- 22.** Armetan zifra ikaragarriak gastatzen diren bitartean, pertsona pobreen kopuruak etengabe gora egiten jarraitzen du.
- 23.** 300 milioi afrikar baino gehiago egunero euro bat baino gutxiagorekin bizi dira.
- 24.** Afrikan, 5 urte baino gutxiagoko 30 milioi haurrek desnutrizioa sufritzen dute.
- 25.** Hiesa duten 42 milioi pertsonetatik, 39 milioik ez dute tratamendu egokia jasotzen, herrialde pobretuetan bizi direlako.
- 26.** Fabrikak gas kutsatzaile berdinak aire ratzen jarraitzen dute.
- 27.** Animalia espezieen herena kutsaduraren, baso-mozketaren eta gehiegizko arrantzaren erruz galdu da.
- 28.** Munduan 5 umetik 1ek ez du Lehen Hezkuntza egiteko aukerarik.

(Nazio Batuen, Cáritasen eta WWFren azterketa eta txosten ezberdinetatik ateratako datuak)



Hazi txiki-txikia

Ilunabarrean, txolarre bat hegan iritsi zen planetako herrialde aberats eta industrializatuenaren hiriburura. Mokoan hazi gorri txiki-txiki bat zeraman. Bere lumak zikinak zeuden kutsadura hodei toxiko bat zeharkatu behar izan baitzuen, eta horren ondorioz, bere begiek ezin zuten ia ezer ikusi. Bere birikak hain minduak gelditu ziren, non hiltzeko zorian baitzegoen.

Horren gaixorik zegoen arren hiriburu handiko plaza nagusian lurreratzeko gai izan zen. Zoru osoa zementuzkoa zen eta eraikin oso altuez inguratuta zegoen. Txolarre gaixoa plazaren erdian etzanda gelditu zen eta, denbora gutxira, hil zen. Hazi txiki-txikia bere mokotik biraka erori zen zorura. Eta, gaua iristean, plaza hutsik gelditu zenean, modu misteriosuan, hazitik sustrai lodiak ateratzen hasi ziren eta arazorik gabe zementuzko zoru gogorrean hondoratu ziren.





Azkar asko zuhaitz bat hazten hasi zen, plaza inguruan zeuden etxe orratzetako altuena baino altuagoa izatera iritsi zena. Hain zen lodia bere enborra, non ezta hamabost gizonak eskutik helduta ere ezin baitzuten inguratu. Bere adarrak hainbeste zabaltzen ziren, non plaza osoa betetzera iritsi baitziren. Eta bere adarrak kolore ezberdinetako milioika eta milioika hostoz josita zeuden.

Eguna argitu zuenean, jendeak kolore anitzeko zuhaitz erraldoi hori plazan landatuta ikusi zuen, eta inork ez zuen ulertzen nola egon zitekeen han. Harrigarria eta ulertezina zen. Lurrean ez zen inoiz horrelako zuhaitzik ikusi. Espezie berri bat zen. Hiriburuko biztanle guztiak zuhaitza ikustera joan ziren, eta kanpoko jende asko ere etorri zen aparteko fenomeno hura ez galtzarren. Mundu osoko kazetariak, telebistak eta zientzialariak etorri ziren gertakari haren azalpena aurkitzeko.

Baina harrigarriena oraindik gertatzeke zegoen. Hurrengo egunean, zuhaitzak zituen kolore anitzeko hostoak adarretatik askatzen eta zorura erortzen hasi ziren. Hosto batek zementuzko zorua ukitzen zuen bakoitzean, lurrak dar-dar egiten zuen, eta hostotik lurra zikintzen zuen odolaren antzeko likido gorrixka bat ateratzen zen.

Gertatzen ari zena hain zen misteriotsua eta bitxia, non hura kontenplaten ari ziren pertsona askoren bihotzak beldurtu egin ziren. Hainbeste hosto erortzen ari ziren, non lurrak ez baitzion dar-dar egiteari uzten. Gainera, gero eta gehiago ziren plaza betetzen zuten odol-putzuak.

Egia esan, erortzen zen hosto bakoitzak munduko planeta aberats eta industrializatuenerako animali edo landare bat, planetako fabrika eta autoetatik ateratzen zen keak eragindako kutsaduraren erruz, guztiz desagertzen zela esan nahi zuen.





Egunak igaro ahala,
herrialdea inolako lorerik,
zuhaitzik, txoririk, intsekturik,
eta abar, gabe gelditzen hasi
zen. Gero eta hosto gutxiago
gelditzen ziren zuhaitz erraldoian.

Jendea laster konturatu zen zer
esanahi zuten zuhaitzak eta bere hostoak... Kutsaduraren erruz hiltzen ari zen
Ama Natura zen.

Orduan jendeak fabrikei euren ke eta hondakin toxikoekin kutsatzeari utz
ziezaioten eskatu zien, baina jabeek ezetz esan zuten, hori egitekotan, diru asko
galduko luketelako eta pertsona asko langabezian geldituko lirakeelako. Autoen
jabeen autoak erabiltzen uztea eskatu zitzaienten, euren keekin kutsatzen zutelako,
baina askok ezetz esan zuten autorik gabe ezin baitziren bizi.

Ondorioz, egunak igaro ahala, zuhaitzeko azken hostoa erori zen eta planetako
herrialde aberats eta industrializatuena bizitzarik, aire garbirik eta urik gabeko
basamortu ikaragarri bat bihurtu zen. Jendeak handik alde egin behar izan zuen
bizitzen jarraitu ahal izateko. Euren autoak hartu zituzten eta beste herrialdeetara
joan ziren. Fabrikak itxi ziren eta beste herrialdeetara eraman zituzten.

Baina, beste egun bateko ilunabarrean, aurreko herrialdea desagertu ondoren
planetako aberats eta industrializatuena zen herrialdeko hiriburura txolarre bat
hegan iritsi zen. Mokoan beste hazi gorri txiki-txiki bat zeraman. Bere lumak ere
zikinak zeuden kutsadura hodei toxiko bat zeharkatu behar izan baitzuen. Istorioa
berriro ere errepikatzen zen. Zure ustez, zein izango da amaiera oraingoan?

José Real Navarro





Jarduerak

Elkarrizketarako galderak

1. Non lurreratu zen txolarrea eta, txolarrea hil zenean, zer erori zen bere mokotik?
2. Zer gertatzen zen hostoekin zorura erortzen zirenean?
3. Zer esan nahi zuen zorura erortzen zen hosto bakoitzak eta zer gertatu zen zuhaitzeko azken hostoa erori zenean?
4. Fabriken eta autoen jabeek zergatik ez zioten kutsatzeari utzi nahi?
5. Zergatik alde egin behar du jendeak hain aberatsa den herrialde batetik?
6. Zer mezu helarazi nahi dizkigu ipuin honek?
7. Gaur egun, gizakiek dugun bizimodua Izadia suntsitzen ari da. Telebistan zein berri ikusi dituzu horren inguruan, hau da, gizakiak eragindako zer ekintza edo gertakarik kaltetu du nonbait Izadiaren bizitza eta osasuna?
8. Kezkatzen edo gogaitzen al zaitu Izadia suntsitzen ari dela jakiteak? Zergatik? Zeintzuk dira gehien kezkatzen edo gogaitzen zaituzten Izadiaren aurkako ekintzak?
9. Zer gauza zehatz, txikiak badirudite ere, egin ditzakegu guk, gure etxean eta gure bizimoduarekin, Izadia zaindu eta babesteko?
10. Ipuinaren amaierako galderari erantzun. Asmatu dezagun amaiera berri bat, istorioa lehenengo herrialdean gertatu ez zen bezala bukatu dadin.

Dinamika: Ospitaleko larrialdia

Oraintxe bertan Natura Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuan lan egiten duten sendagileak bihurtuko zarete. Gaur, gaueko txandan lan egiten ari zarete. Beraz, 4 edo 5 sendagilez osaturiko taldeak egin. Bat batean, lau ambulanzia iristen dira eta oso gaixo dauden lau paziente ateratzen dituzte. Aire, Ura, Lurra eta Animalia Espezieak dira.

Lau kasuak arreta handiz aztertu, sendagile onak zarete eta. Euren gaixotasunen sintomak zehazten dituzten fitxa medikoak begiratu. Eta, kasu bakoitzean, tratamendu orrian idatzi sufritzen duten gaixotasuna murriztu eta sendatzeko egingo zenituzten gauzak, hau da, zer erremedio, zer ekintza edo zer erabaki hartu beharko lituzkete mundu osoko herritar eta gobernariak, denon artean gure pazienteak sendatu ahal izateko. Ekin lanari!





Lehenengo pazientearen fitxa

IZENA: Airea.

SINTOMAK: Zailtasun handiz arnasten du.

ZERGATIK: Airea ke toxiko eta pozoitsuz beteta dago. Nondik dator ke hau:

- Fabriketako tximinietatik.
- Auto, autobus, kamioi, hegazkin, berokuntza galdara, eta abarretako ihes-hodietatik.
- Elektrizitatea ekoizten duten enpresetatik, ikatz edo petrolio asko kontsumitzen dutenez, airera doazen gas toxiko asko eragiten dituztelako.
- Hiri handietako errausketa-instalazioetatik.

BESTE EFEKTU BATZUK:

- Berotegi-efektua.

Gizakien erruz airean dagoen ke eta gas toxiko kantitate handia dela eta, eguzkiaren beroa gure planetara helarazten duen hodei ikusezin handi bat sortzen da. Gure planeta hodei horren eta lurrazalaren artean harrapatuta gelditzen da, eta tenperaturak normalak ez diren mailetaraino igotzen dira.

Airearen kutsadura iritsi zen arte, eguzkiaren beroa ez zen gure atmosferan hain harrapatuta gelditzen eta kanpora alde egin zezakeen. Tenperaturak urteko urtaro bakoitzaren arabekoak ziren. Gaur egun, hau ez da jada gertatzen. Horregatik, klima aldatzen ari da, udan bero asko egiten du, eta neguan ez du hainbeste hotz egiten. Dena urez betetzen duten euri-zaparradak sarri gertatzen dira, eta dena suntsitzen duten urakan edo tornadoak ugariak dira.

- Gure ozono-geruzak duen zuloa.

Gure planeta, Lurra, 19 eta 48 kilometroko altitudean kokatuta dagoen geruza batek babesten du. Geruza hori Ozono izeneko gas batez osatuta dago. Bere funtzioa izaki bizidun guztiak, animaliak eta landareak, eguzkitik datozen izpi ultramoreetatik babestea da. Geruza hau gabe, landare eta animaliek bizitza kenduko lieketen gaixotasun asko sufrituko lituzkete, eta gizakiek azaleko minbizia eta itsutasuna bezalako gaixotasun asko sufrituko lituzkete.

Bada, airea kutsatzen duen eta gizakiak igortzen duen gas toxikoetako bat da polo batean ozono-geruza modu kezagarrian desagerrarazten ari dena. Gas toxiko honen izena Freon da, hozte-sistematan erabiltzen da eta aerosol poto askok barne hartzen dute.

PRONOSTIKOA: Larria. Berehalako esku-hartzea behar da.

Bigarren pazientearen fitxa

IZENA: Ura.

SINTOMAK: Goragaleak edaten duenean.

ZERGATIK: Ura zikintzen eta kutsatzen duten hondakin toxikoez beteta dago.

Nondik datoz:

- Fabriketako hustubideetatik, ibaietan eta itsasoan hondakin kimiko pozoitsuak isurtzen dituztenak.
- Hiri handietako hustubideetatik, ibaietara eta itsasora euren ur zikin guztiak botatzen dituztenak.
- Itsasoan hondoratzen diren petrolio-ontzietatik, euren karga osoa itsasoan isurtzen baitute, edo euren zisternak garbitzen dituztenean.

BESTE EFEKTU BATZUK:

- Euri azidoa.

Fabriketako tximinek airera botatzen dituzten hainbat gas toxikoen erruz, euria egiten duenean, euri tantek, lurrera erori baino lehen, gas hauek xurgatzen dituzte eta azidoarekin kutsatuta dauden ur tantak bihurtzen dira. Ur tanta hauek zuhaitzetako edo landareetako hostoen gainean erortzean, hiltzen dituzte. Zuhaitz eta baso asko euri honen erruz hiltzen dira.

- Lehortea.

Airearen kutsadurak tenperaturak eta klima aldatu dituzenez, ez du lehen bezain beste euririk egiten eta lehortea arazoak daude. Hala ere, gizakiok edateko ura barra-barra gastatzen jarraitzen dugu.

PRONOSTIKOA: Larria. Berehalako esku-hartzea behar da.



Hirugarren pazientearen fitxa

IZENA: Lurra.

SINTOMAK: Pozoiduraren ondoriozko infekzio orokorra.

ZERGATIK: Lurra zaborrez beteta dago. Nondik datoz:

- Etengabe hazten jarraitzen duten hiri eta herrietako zabortegetatik.
- Gizakiek izadian daudenean lurrera botatzen dituzten hondakinetatik.
- Fabrikek ekoizten dituzten zabor solidoetatik.
- Soroen laborantza kaltetzen duten plagak eliminatzeko erabiltzen diren intsektizidetatik, azkenean lurra kutsatzen baitute.

BESTE EFEKTU BATZUK:

- Desertifikazioa.

Zuhaitz mozketaren eta baso-suteen ondorioz, euriek lur aberatsa berekin eramaten dute, ez baitago lurra helduko duten zuhaitz sustrairik. Denboraren poderioz, eremu hau basamortu bihurtzera behartuta dago.

- Hirigintza geldiezia.

Etxebizitza, apartamendu, txalet, hotel, eta abarren eraikuntzak, mendi aldean edo kostaldean, ingurune naturala suntsitzen du, baso eta eremu natural babestuentzat gero eta lur gutxiago utziz.

PRONOSTIKOA: Larria. Berehalako esku-hartzea behar da.



Laugarren pazientearen fitxa

IZENA: Izaki bizidunak.

SINTOMAK: Animalia eta landare askoren hilketa eta suntsipena.

ZERGATIK:

- Zuhaitzen mozketa bereizi gabea.
- Baso-suteak.
- Arraienen neurritz gaineko arrantza.
- Animalia basatien ehiza.
- Airearen, uraren eta lurraren kutsadurak animalia eta landare asko hiltzen ditu, eta horrek espezie anitz desagertzeko zorian egotea eragiten du.
- Gizakiak geroz eta toki gutxiago uzten du animaliak eta landareak bakean eta eragozpenik gabe hazi eta bizi ahal izateko.

OTROS EFECTOS:

- Pobrezia.

Herrialde aberatsek eragiten duten kutsadura herrialde pobreak bete-betea kaltetzen ditu. Aire kutsatuak, ur kutsatuak, zaborrek eta hondakin toxikoek, arrainen hilketak, zuhaitzen mozketak, kliman aldaketak eragiten dituen berotegi-efektuaren ondoriozko tenperaturen igoerek, urakanek, uholdeek edota lehorteek ez dute mugarik, eta herrialde pobreetan bizi diren herritarrek gehiago sufritzen dituzte, euren bizitzak, euren osasunak eta euren ekonomiak ondorio kaltegarriak jasaten dituztelarik.

Izan ere, herrialde aberatsek, aberatsak izaten jarraitu ahal izateko, gehiago kutsatu behar dute, Izadia kutsatzen duten gero eta fabrika, auto eta industria gehiago dituztelako. Ez dute diru asko inbertitu nahi euren fabrikek airera botatzen dituzten ke toxikoenak murriztu eta garbitzeko.

- Giza espeziea desagertzeko zorian.

Gizakiak ez badio, orain egiten ari den erritmoan, kutsatzeari eta Izadia suntsitzeari uzten, hemendik 100 urtera ondorioak konponezinak izango dira.


PRONOSTIKOA: Larria. Berehalako esku-hartzea behar da.



Talde mediko guztiek euren lau pazienteak salbatzeko tratamenduak elaboratzen bukatzen dutenean, bateratzeko unea iritsiko da. Talde guztiek paziente bakoitzari aplikatuko lioketen tratamendua adieraziko dute, hau da, lehenengo pazienteari buruz, airea, talde guztiek pentsatu dutena esango dute, eta gauza bera gainerako pazienteekin. Honela, tratamendu ezberdinen arteko bat-etortzeak edo desberdintasunak ikusiko dira.

Bukatzeko, denon artean horma-irudi handi bat egingo dugu paper jarraitua erabiliz. Hezitzaileak paperean zuhaitz handi batean silueta marraztuko du. Eta, zuetako bakoitzak, hezitzaileak emango dizkizuen koloretako paper edo kartoi meheetan, ipuin honetan landutakoaren ondoren, Izadia zaindu eta babesteko hartu nahi duen konpromiso bakoitzeko hosto bat ebaki beharko du.

Hosto guztiak ebaki ondoren, bakoitzean konpromiso bat idatziko duzue. *(Gogoratu zuen gurasoak gai honen inguruan sentsibilizatu eta kontzientziatzeko konpromisoa eta misioa duzuela ere.)* Jarraian, zuen hostoak horma-irudiko siluetan itsatsi eta, denak itsatsita daudenean, irudia paretan eseki, Izadia babesteko hartu duzuen konpromisoa ikusgai gelditu dadin eta inoiz ahaztu ez dadin.



Partekatzearen inguruko otoitza

Kaixo Jesus;
nire laguna,
nire anaia
eta nire Jainkoa.

Zein ondo sentitzen naizen
norbaitek zerbait nirekin partekatzen duenean,
edo behar dudan zerbait atseginez uzten didanean,
edo zerbait musu-truk ematen didatenean.

Zein berekoa izango nintzateke ni, Jesus, besteek
eurena dena nirekin partekatzea besterik nahi ez banu
eta nik eurekin gauza bera egingo ez banu.

Ez nazazu inoiz, Jesus, berekoikerian erortzen utzi.
Ez dut dena bere buruarentzat nahi duen eta
besteentzat ezer uzten ez duen norbait izan nahi.
Ez dut bere gauzez bakarrik kezkatzen den eta
lagun edo kideek behar dutenaz ahazten den norbait izan nahi.
Ez dut apetatsua den eta,
besteek baino gehiago edukitzeko edo harro ibiltzeko,
beti gauza berriak erosten ari den norbait izan nahi.

Lagundu, Jesus, duena partekatzen
dakien pertsona bat izaten.
Zuk esaten zenuen ematen duenaren poza
hartzten duenarena baino handiagoa dela... Eta egia da.
Ematen duenaren eta besteak
zoriontsu egiten dituenaren poza,
gero eta gauza gehiago dituen eta bakardadean
gozatten dituenarena baino handiagoa da.

Jesus, zuk esaten zenuen hau
egunero bete nahi dut,
beti poz honekin bizitzeko,
ingurukoak zoriontsu egiteak ematen duen poza.



apaltasunez bizi, besteek bizitzeko aukera apala izan dezaten

Zure otoitza koloreztatu





Caritas

www.caritas.es